

Goi mailako pilota jaialdia ostiralean Antzizarren

Azken eguneratzea: Azteazkena, 14 Martxoa 2018 19:23

Argitaratua: Azteazkena, 14 Martxoa 2018 19:22



Binakako promozio txapelketako finalerdietako partiduan Peña II eta Erasun, Etxeberria eta Jaunarenaren aurka jokatu dute eta lehen mailako norgehiagokan Bengoetxea VI eta Albisu, Urrutikoetxea eta Ladis Galarza izango dira aurrez aurre

Udalak honela enpresekin duen akordioari esker Beasainen goi mailako pilota partiduak antolatuz, pilota sustatzeko ahaleginari eusten dio

Hitzordua ostiral honetan, hilak 16, izango da gaueko 22:00etan Antzizar kiroldegiko frontoian. Goi mailako pilotari profesionalak eta binakako promozio txapela lortzeko ahaleginean dabiltzan bikoteak ikusteko aukera izango da.

Pilotazaleentzako jaialdi erakargarria antolatu da. Binakako esku pilota partiduak izango dira. Alde batetik, promozio txapelketaren barruan finalerdietako partidua jokatu da Peña II eta Erasun, Etxeberria eta Jaunarenaren artean. Hauek finalera iristeko lehian izango dira. Bestalde, jaialdia borobiltzeko bigarren partidua egungo punta-puntako pilotariak jokatu dute, Bengoetxea VI eta Albisu, Urrutikoetxea eta Ladis Galarzaren aurka.

Goi mailako pilota jaialdia ostiralean Antzizarren

Azken eguneratzea: Azteazkena, 14 Martxoa 2018 19:23

Argitaratua: Azteazkena, 14 Martxoa 2018 19:22

Beasaingo Udalak honela herrian pilota eta kirol honekiko zaletasuna pizteko ahaleaginean jarraitzen du. Murumendi pilota eskolarekin eta kirol fundazioaren bidez iaz pilota enpresa nagusienekin hitzartutako akordioari esker, goi mailako pilotarien arteko partiduak Beasainen jokatzeko konpromisoa lortu zuen. Iazko ekainean San Fermin txapelketako finalerdietako partiduak jokatuz jarri zen martxan akordioa. Aurten errepikatuko dira ekaineko jaialdiak baina bi aldeak ez dira horretara bakarrik mugatuko eta aukera sortzen denean bien adostasunarekin jaialdi gehiago antolatzeke aukera zabalik dago, orain gertatu dena adibide.

Bertako eta eskualdeko pilotariak jokatzen ikusteko aukera paregabea izango da, Albisu ataundarra eta Peña II-aren kasuan aita beasaindarra duena (Peña pilotari ohia). Sarrerak Antzizar kiroldegiko takilan eskuratu ahal izango dira egunean bertan eta 20 euroko salneurria izango dute. ETB zuzenean eskainiko du jaialdia.



Martxoak
2018
16
Ostirala

BEASAIN
ANTZIZAR Kiroldegia

Ordua
22:00
etan

Binakako Promozio Txapelketa - Finalerdiak

PEÑA II-ERASUN
P. ETXEBERRIA-JAUNARENA

Binaka

BENGOETXEA VI-ALBISU
URRUTIKOETXEA-LADIS GALARZA

Laguntzaileak: Beasaingo Udala, Murumendi Pilota Eskola ta Fundazioa



BEASAIN
KIROLFUNDATZIOA
Síguenos en **facebook**

